

ERASOTUA SENTITU BAZARA EZ JARRI ZURE BURUA ZALANTZAN

ERASO MATXISTEN
AURREAN
**AUTODEFENTSA
FEMINISTA**

**EZ IZAN
KONPLIZE!**

**EZ JARRI ZALANTZAN
ERASOA JASAN DUENAREN HITZA.**
Erasoa jasan duenaren iritzia errespetatuko dugu,
momentuko erantzunaren, gertatutakoa zabaltzearen
eta salatzearen inguruan.

**ERASOA EGIN DUENARI ARGI UTZI EZ
DELA ERASO EZ JARRERA
MATXISTARIK ONARTZEN, ETA JAI
EREMUTIK KANPORATU**

**ERASOA EGIN DUENA ZURE LAGUNA
BADA, EZ JUSTIFIKATU BERE JARRERA**
Zure laguna inguruko norbait desoroso sentiarazten ari
bada, hartu kargu. Erasoren bat egin duela ikusten
baduzu edo esaten badizute, hartu egoeraren ardura eta
ez justifikatu bere jarrera.

MORBORIK EZ!
Ez zabaldu erasoak jasan duenaren izena, ezta
txutxumutxurik ere. Zure inguruan ere honen
garrantzia gogorazi.

**TABERNARIA NAIZ. NOLA JOKATU
ERASO BATEN AURREAN?**
Egoerari lehenetsuna eman. Utzi zure zereginak, eta
eta egoeraren arabera neurriak hartu: argiak piztu,
musika itzali... Erasoa egin duenari adierazi eremuan
ez dela erasorik onartzen, eta tabernatik kanporatu.

**GUZTION
ARDURA DA
ERASORIK GABEKO
GUNE ASKEAK
SORTZEA**

**TXOSNAGUNEAN
ERASOEN AURKAKO
PROTOKOLOA
AKTIBATUKO DA**

BAKARRIK AHAL DUZU?

BAI

EZ

ZUK EZARTZEN
DITUZU MUGAK.
**NAHI DUZUN
MODUAN
ERANTZUN!**

EZ ZAUDE BAKARRIK.
BILATU KONPLIZITATEA
INGURUAN ETA
**LAGUNTZA
ESKATU.**

ERASOA
GELDITU DA?

BAI

EZ

**EROSO
BAZAUDE
JARRAITU
FESTAN!**

[!] **Bakarrik bazaude:** egin oihu eta eskatu laguntza. Eta eduki konfidantza zure buruan, uste duguna baino indar gehiago daukagu eta.

[!] **Bortxaketa kasuetan,** bilatu inguruko norbaiten laguntza, eta garbitu edo duxatu aurretik, joan Osakidetzara. Bertan emango dizkizute jarraibideak.

**NORA
JO?**

Saregile plazako karpa

Jo bertara erasoen berri emateko zein informazioa eskatzeko.

Bi larunbatetan postua egongo da bertan, 19:00-21:00 eta 00:00-02.00.

Txosnaguneko barra

Txandak betetzen ari diren pertsonak protokoloa aktibatzeke prest egongo dira.

Jo barrara eta eskatu laguntza.

Larrialdiak: 112

Bakarrik bazaude, edo egoerak hala eskatzen badu, deitu larrialdi zerbitzuetara.

**BALIABI-
DEAK**

Gizarte Zerbitzuak: 943 86 22 00

Eraso matxista bat jasan baduzu, baliabideak eskainiko dizkizute bertan (ez da ezinbestekoa salaketa formala jarri izana).

Erasoen aurkako telefonoa (24h): 900 840 111

#kontatu:

Zumaiako Mugimendu Feministarekin harremanetan jarri nahi baduzu, idatzi: zumaiakoemakumeonetxea@gmail.com

apirilak 23, larunbata
MANIFESTAZIOA
23:00 / txosnagunetik hasita

apirilak 29, ostirala
POTEO FEMINISTA
19:30 / amaia plazatik hasita

ZUMAIAKO MUGIMENDU FEMINISTA

KALEAK ETA GAUAK GUREAK DIRA!

Bi urte eta gero, hemen dira santelmoak. Denbora asko daramagu momentu honen zain: kaleaz, jendeaz, musikaz eta desinibizioaz gozatzeko aukera izango dugu azkenean!

Festen atarian mezu argi bat zabaldu nahi dugu: GUZTION ARDURA DA eraso sexista, LGTBI+fobo, arrazistak... saihestu eta identifikatzea, eta festetan guztiontzako seguruak eta erosoak diren espazioak sortzea.

**HARTU ARDURA,
EZ IZAN KONPLIZE!**

ZUMAIAKO MUGIMENDU FEMINISTA